



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 12a

52. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00002. Foru-lege proiektua, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua ematekoa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00045. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornago jauna gaitzesten baitu, zenbait herri-lanen kontratazioa dela-eta bere departamentuaren gainean dauden susmoengatik. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (5. or.).

—11-24/MOC-00046. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitie nafar sormen-artistei, beren sortze-askatasunaren erabileran. Daniel López Córdoba jaunak aurkeztu du (6. or.).

—11-24/MOC-00047. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bat egin dezan Espainiako unibertsitate publikoetara ikertze- eta irakaste-talentua erakartzeko programarekin. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).

—11-24/MOC-00048. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita proiektu bat taxutu dezan, industria eolikoaren sektorean isuri garbiak zero izanzen dituen industria baterako europar akademia bat ezartzekoa Nafarroan. Ana María Elizalde Urmeneta andreak aurkeztu du (9. or.).

—11-24/MOC-00049. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita plan bat egin dezan, larrialdikoa ez den arretarako bermatuko duena 48 ordukoa izatea Oinarrizko Osasun Laguntzako gehieneko itxaronaldia. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (10. or.).

—11-24/DEC-00023. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Ijitoen Herriaren Egunarekin eta Nafarroako Ijitoen Erkidegoaren Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-24/PES-00165. Galdera, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako destinorik gabeko espezialistei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00166. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00167. Galdera, 11-24/PEI-00262 informazio eskaerari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00168. Galdera, Andosillako eta San Adriango landa eremuko larrialdi ekipoak bateratzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00169. Galdera, Andosillako eta Carcarko landa eremuko larrialdi zerbitzua San Adrianera eramateari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00170. Galdera, Europako Next Generation funtsei buruzko web berriaren egoerari buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00171. Galdera, Andosillako jarduera ekonomikoetako poligonoari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00172. Galdera, martxoaren 22an Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00173. Galdera, 2023ko ekitaldian Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalean egindako inbertsioen exekuzioaren gaineko txostenari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (18. or.).
- 11-24/PES-00174. Galdera, Espainiako Gobernuak egindako iragarpenari buruzkoa, zeinaren arabera Nafarroak 11,2 milioi euro jasoko baitu datozen sei urteetan, irakasle laguntzaile izateko 46 lanpostu finantzatzeko. Cristina López Mañero andreak egin du (19. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00002. Foru-lege proiektua, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua ematekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2024ko martxoaren 27an hartutako Erabakiaren bidez, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua emateko foru-lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Aipatu foru-lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proiektua, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua ematekoa

HITZAURREA

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak eta Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak igorritako txostenetan, adierazten da 2024an zenbait gasturi aurre egin beharko zaiela eta ez dagoela horietarako egokia den partidarik aurrekontuan.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen duenez, baldin eta hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat egin behar bada aurrekontu indardunaren kargura, eta krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru-lege baten proiektua bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditua ematekoa. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen denez, edozein gastu-programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal da aparteko kreditua, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru-lege horren xedapenak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

1. artikulua. Aparteko kreditua ematea.

2024ko aurrekontuan 539.000 euroko aparteko kreditua ematen da, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

AURREKONTUKO PARTIDA	ZENBATEKOA
100000 10100 1220 923902 Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (PRTR) kudeaketa	225.000
100000 10100 1600 923902 Gizarte Segurantza. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (PRTR) kudeaketa	73.000
210001 21300 7609 2616S5 Faltzesko Udalarentzako transferentzia: zezenketetako harmailak hobetzea	25.000
210001 21300 7609 2616S6 Muesko Udalarentzako transferentzia: kale Nagusiko tarte batean zoladura berritzea eta zubia konpontzea	30.000
320000 32200 2276 261103 Belaunaldien arteko lankidetzaproiektuaren bideragarritasun-azterketa	18.000
320000 32200 2276 261104 Bidezainen etxebizitzaren bizitegi-potentzialtasunari buruzko azterketa	18.000
A20002 A2500 7816 335104 Punto Gunea elkartearantzako dirulaguntza. Taldeentzako gela intsonorizatuak egokitzea	20.000
A30001 A3100 4609 432109 Iruñeko Udalarentzako transferentzia. Pilotaren Interpretazio Zentroa	100.000
A30004 A3400 4609 432102 Aezkoako Batzordearekiko hitzarmena. Aezkoako Kultur Ola kudeatzea	30.000

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

539.000 euroko aparteko kreditu hori honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kontura finantzatuko da:

AURREKONTUKO PARTIDA	ZENBATEKOA
F00000 F0100 1220 921102 (E) Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	298.000
A50000 A5000 7609 3361E1 (E) Faltzesko Udalarentzako transferentzia: futbol-zelaiko harmailak hobetzea	25.000
210001 21300 7609 2616P9 (E) Muesko Udalarentzako transferentzia: Virgen de la Cuesta kaleko zoladura berritzea eta zubia konpontzea	30.000
320000 32200 4609 261100 (E) Tuterako Udalarekin egindako hitzarmena, belaunaldien arteko lankidetzaproiektuaren bideragarritasun-azterketa egiteko	18.000
320000 32200 4609 261102 (E) Tuterako Udalarekin egindako hitzarmena, bidezainen etxebizitzaren bizitegi-potentzialtasunari buruzko azterketa egiteko	18.000
A20002 A2500 7709 335100 (E) Punto Gunea elkartearantzako dirulaguntza. Taldeentzako gela intsonorizatuak egokitzea	20.000
A30001 A3100 7609 432109 (E) Iruñeko Udalarentzako transferentzia. Pilotaren Interpretazio Zentroa eraikitzeke proiektua idaztea	100.000
A30004 A3400 4819 432102 (E) Aezkoako Batzordearekiko Hitzarmena. Aezkoako Kultur Ola kudeatzea	30.000

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00045. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornago jauna gaitzesten baitu, zenbait herri lanen kontratazioa dela-eta bere departamentuaren gainean dauden susmoengatik

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornago jauna gaitzesten baitu, zenbait herri lanen kontratazioa dela-eta bere departamentuaren gainean dauden susmoengatik.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko honako mozio hau aurkeztu du Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornago gaitzesteko, zuzentzen duen departamentua ukitzen ari diren eskandaluak direla-eta.

Zioen azalpena

Martxoaren 8an, ostirala, Lurralde Kohesiorako kontseilariak agerraldia egin zuen legebiltzarrean, Herri Lanen zuzendari nagusiarekin batera, Bela-

teko tunelen bikoizketari begira departamentuak egindako emakidari buruzko azalpenak emateko.

Martxoaren 18an, kontratazio-mahaiko kide batek idazki bat aurkeztu zuen Legebiltzarreko erregistroan; haren bidez, salatu zuen erdizkako egiak eta erabilera interesatukoak zirela Lurralde Kohesiorako kontseilariari eskatutako agerraldian Herri Lanen zuzendari nagusiak egindako zenbait adierazpen.

Orain dela egun batzuk, hedabide baten bidez jakin genuen departamentua ustezko irregulartasunetan nahasturik dabilela herri lanen zenbait proiekturen kasuan, marka jakin bateko luminariak paratzea exijitu baitu.

Oso larriak dira departamentuaren gaineko susmoak: talde parlamentarioek eskatutako dokumentazio osoa ez bidaltzea, eta desitxuratzea eta faltsutzea partikular baten hitzak, departamentuak egindakoa zurrizteko.

Ezin da aldiro susmopean egon 650 milioi euro inguru mugitzen dituen eta gure erkidegoaren garapenerako funtsekoa den departamentu hori.

Ustezko irregulartasun horiek direla-eta departamentuaren gainean dauden susmoen eta salaketan larritasuna ikusita, kontseilaria gaitzestea eskatzen dugu.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Óscar Chivite Cornago gaitzesten du, zenbait herri lanen kontratazioa dela-eta bere departamentuaren gainean dauden susmoak direla-eta.

Iruñean, 2024ko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/MOC-00046. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitie nafar sormen-artistei, beren sortze-askatasunaren erabileran

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen baitie nafar sormen-artistei, beren sortze-askatasunaren erabileran.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Martxoaren 12an harriduraz jakin genuen nafar artista batek aurretiaz erretiratu beharko duela erakusketa bat, euren erlijio-sentimenduei laido egiten diela dioten zenbait pertsona pozik ez daukela eta.

Gure ustez, gune pribatu bat libre da nahieran egin, desegin eta kudeatzeko, eta eskubidea du kanpoko pertsonen edo kolektiboen aldetik jasotako presioei kasu egiteko edo ez egiteko.

Artean, zentsura da gobernu, erakunde edo pertsona batek arte-adierazpide bat mugatzea edo debekatzea. Zentsura modu askotakoa izan daiteke: artelanak debekatzea, arte-ikuskitzak bertan behera uztea, artistak presionatzea haien lana alda dezaten...

Mundu osoko erakundeak, funtzionarioak nahiz sareen erabiltzaileak gero eta sarriago ezeztzen ari dira –eta kezagarria da, hortaz– arte nahiz literatur lanak.

Espanian egile-lan batzuk jendaurretik kentzeko azkenaldian egin diren saiakerak –horietako batzuk, burutu egin dira– ez datoz bat horri buruz indarrean dagoen legediarekin; izan ere, Konstituzioaren 20. artikuluan aitortu eta babestu egiten dira pentsamenduak, ideiak eta iritziak libreki adierazteko eta zabaltzeko eskubidea eta literatura, artea, zientzia eta teknika ekoizteko eta sortzeko eskubidea.

Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki hauek hartzen ditu:

1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die artista sortzaile nafarrei haien sormen-ahalmena askatasunez balia dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak sormen askatasuna aldeztu du, Konstituzioaren 20. artikuluan jasotako konstituzio-balioa den aldetik.

3. Nafarroako Parlamentuak artearen, artisten edo haien lanaren aurkako zentsura-jarrerak arbuiatzen ditu.

4. Nafarroako Parlamentuak sormen-askatasunarekiko eta zentsuraren aurkako konpromiso argia berresten du eta, ondorioz, ordezkaritza politikokoek kultura eta artean esku hartzea arbuiatzen du.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/MOC-00047. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia- tzen baita bat egin dezan Espainiako unibertsitate publikoetara iker- tze- eta irakaste-talentua erakartzeko programarekin

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita bat egin dezan Espainiako unibertsitate publikoetara iker-tze- eta irakaste-talentua erakartzeko programarekin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premia-tzen da bat egin dezan irakasle eta ikertzaile talentudunak Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko programarekin. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eginen du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena

Joan den martxoaren 15ean Espainiako Gobernuak, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren bidez, iragarri zuen bere konpromisoa dela unibertsitate publikoei laguntzea, bermez garatu ahal izan dezaten egonkortasun eta kalitatezko irakasleen eredu bat; horretarako, irakasle eta ikertzaile talentudunak Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko programa proposatu du, 2024-2025 ikasturterako irakasle laguntzaile doktore izateko 3.400 postu dakarrena, urteko 150 milioi euroko kostuarekin. Programa horren bidez, irakasle mota horren kontratuko sei urteak ordainduko dira. Era horretan, Ministerioak nabar-

men bikoizten du deialdi arrunta, Espainiako unibertsitatearen historia hurbilean irakasle gazteak gehitzeko plan handiena izatera iritsiz.

Helburua da konpentsatzea irakasle elkartuen eta irakasle laguntzaile doktore berrien irakaskuntza-arduraldiaren aldaketak, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoan ezarritakotik eratorriak.

Halaber, plantillak gaztetzea sustatzen da; izan ere, gaur egungo irakasle laguntzaile doktoreek 39 urte dauzkate batez beste, eta adin hori luzaz igotzen da baldin eta unibertsitateko egungo plantilletan dauden bestelako irakasle-ikertzaileen batezbesteko adinari erreparatzen badiogu.

Espainiako Gobernuaren apustua irmoa da, beraz, gure unibertsitate publikoek eredu berri hori arrakastaz ezartzen ahalko dutela bermatzeko, eta, hartara, goi mailako hezkuntzako erakunde horiek dinamikoak izan daitezen laguntzen du, ikasleak zehaztasunez eta bikaintasunez prestatzeko gaitasuna indartzen du, bai eta gure produkzio-sareak aurrera egiteko ezagutza sortzen eta transferitzen eta gure gizartearen kohe-sioa indartzen ere.

Neurri honi esker, itxi egiten da unibertsitate publikoek orain dela 15 urtetik hona bizi duten aurrekontu-murrizketen sasoi luzea, Alderdi Popularraren politikek abiarazi zutena eta doi-doi bost urtean 1.100 milioi euroko murrizketa ekarri zuena haien finantzaketan. Murrizketa horiek eragin nabarmena izan zuten unibertsitate publikoetako irakasle-plantilletan, irakasle-talde jakin batzuen prekarizazioa ekarri zuten, plantillak kalitatez berritzea zaildu zuten, talentua erakartzea oztopatu zuten eta, azkenik, plantillak gaztetzea eragozti zuten.

Gobernuak 2023an onetsitako Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoak (LOSU) oinarriak ezarri ditu planteamendu progresista batetik abiatuta unibertsitateak modernizatzeko, honako oinarri hauek izanen dituen unibertsitate publikoetako irakasle eredu berri baten bidez:

- lanbide-karrera definitu, garden eta sendoa,
- irakasle gazteak sisteman sartzeko, irakasle laguntzaile doktorearen figuratik abiatuta,

- irakasleak lanpostuan finkatzea, haien lanbide-nolakotasun bikoitza aintzat hartuta; irakasleak eta ikertzaileak, hain zuzen ere,

- plantilla gehienbat egonkorra taxutzea,

- beren eskarmentu profesionala ekarriko duten irakasle elkartuak edukitzea,

- irakasle-talde jakin batzuetan ematen diren prekaritate-poltsei aurre egiteko mekanismoak taxutzea.

Helburua betetzeko, LOSUK administrazio publikoen arteko erantzunkidetasun-printzipioa ezartzen du, unibertsitate publikoen finantzaketa handitzeko. Hori gogoan, eta ardura bere gain hartuta, Espainiako Gobernuak programa hau bultzatzen du, eta unibertsitate publikoen eskutik doa beren plantillak eredu horretara egokitzeko prozesu honetan.

Baina aldi berean, nola ez, autonomia-erkidegoei exijitzen die, administrazio eskudunak diren aldetik, beren unibertsitate publikoek behar dituzten irakasle laguntzaile doktoreen gainerako lanpostuen kostua beren gain har dezaten.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bat egin dezan Espainiako unibertsitate publikoetara ikertze- eta irakaste-talentua erakartze aldera Espainiako Gobernuak bultzatutako programarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du unibertsitateko irakasleen arloan dauzkan eskumen autonomikoak bete ditzan; hartara, bere gain hartuko du NUPeko irakasleen irakaskuntza-dedikazioa LOSUK ezarritakora egokitu ahal izateko beharrezkoak diren irakasle laguntzaile doktoreen lanpostuen kasuko partearen kostua, Irakasle eta ikertzaile talentudunak Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko programaren esparruan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru-erkidegoak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketarako inbertsioa areagotzeko plangintza proposa dezan, 2030ean BPGaren % 1ekoa izan dadin.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/MOC-00048. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita proiektu bat taxutu dezan, industria eolikoaren sektorean isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako europar akademia bat ezartzekoa Nafarroan

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita proiektu bat taxutu dezan, industria eolikoaren sektorean isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako europar akademia bat ezartzekoa Nafarroan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Batzordean eztabaidatzeko:

Industria eolikoaren sektorean isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako Europako akademia abian jartzeko proiektua taxutzea energia eolikoaren Europako industria babeste aldera Europako Batzordeak onetsitako berehalako neurrien esparruan.

Zioen azalpena

2023ko urriaren 24an, Europako industria eolikoak bizi duen krisia ikusita, Europako Batzordeak

berehalako neurri-sorta bat onetsi zuen sektoreari laguntzeko. Neurri horiek abian jarri ahal izateko, beharrezkoa da Europako kasuko administrazioak lankidetzan aritzea.

Aurreikusitako neurrien artean, isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako Europako akademiak abian jartzea ahalbidetuko du Batzordeak, sektore eolikorako bat barne, Europar Batasuneko estatuek langileen trebakuntza eta lanbide-birziklatzea hobetu dezaten.

Nafarroak industria eoliko handia du, 6.000 lanpostu zuzen baino gehiago sortzen dituen, zeharkakoak kontuan hartu gabe. Gainera, foruerkidegoak urteak daramatza energia berriztagarrien industria sustatzen, ezar daitezten ahalbidetzen, bai eta entseguen zentro espezializatuak edo lanbide heziketako zentroak ere, sortu berri den katedra barne.

Horregatik, UPNn uste dugu Nafarroaren egoera paregabea dela isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako Europako akademia horietako bat hartzeko, sektore eolikorako bat barne.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektu bat taxutu dezan, industria eolikoaren sektorean isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako europar akademia bat ezartzekoa Nafarroan.

2. Proiektu hori Europako erakundeetan aurkez dezan.

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua arduratuko da mozio honen jarraipena egiteaz.

Iruñean, 2024ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-24/MOC-00049. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita plan bat egin dezan, larrialdikoa ez den arretarako bermatu-ko duena 48 ordukoa izatea Oinarrizko Osasun Laguntzako gehieneko itxaronaldia

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita plan bat egin dezan, larrialdikoa ez den arretarako bermatuko duena 48 ordukoa izatea Oinarrizko Osasun Laguntzako gehieneko itxaronaldia.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Oinarrizko osasun-laguntza da osasun-sisteman sartzeko atea. Laguntza-maila horretan gertatzen den narriadura oro gertu-gertutik nabarmentzen dute herritarrek, hori baita gertuen duten osasun-zerbitzua eta horrekin baitute harreman handiena. Izan ere, 2024 honetan, gure foru-erkidego honetako herritar bakoitza batez beste 9 aldiz joanen da bere osasun etxera, bertan lan egiten duten osasun arloko profesionaletako batekin egoteko hitzordu batera.

Azken urteotako datuek erakusten dutenez, Nafarroan okerrera egin du oinarrizko osasun-laguntzarako irisgarritasunak. Hitzordua 24 ordu baino gutxiagoan lortzen duten pertsonen kopurua pittin bat murriztu da azken lau urteotan, baina denbora-tarte horretan berean bikoiztu egin da gure foru-erkidegoko osasun etxe batean arta

jasotzeko 5 egun baino gehiago itxoin behar duten pertsonen kopurua.

Oinarrizko osasun-laguntza narriatze horrek haserrea eta frustrazioa eragiten du herritarren artean. Azken 4 urteotan % 150 igo da oinarrizko osasun-laguntza dela-eta herritarrek aurkeztutako kexen eta erreklamazioen kopurua. Horietako batzuk Nafarroako Arartekoarengana iritsi dira. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak artatutako nafar herritarrei egindako gogobetetasun inkesta egin berriaren bidez jakin dugunez, oinarrizko osasun-laguntzarako irisgarritasuna da zerbitzu hori dela-eta okerren baloratzen dena.

Bestalde, eta oinarrizko osasun-laguntzako itxarote-zerrendei buruz herritarrek duten informazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuaren webgunean gaur egun ez da inongo adierazlerik jasotzen ahalbidetzen duena jakitea zein den osasun etxe bakoitzean itxaron beharreko denbora.

Ematen du arrazoizkoa dela, egoera ikusita eta kontuan hartuta Nafarroa dela Espainia osoan osasungintzara per capita aurrekonturik handiena bideratzen duten erkidegoetako bat, beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea oinarrizko osasun-laguntzarako irisgarritasuna hobetzeko, osasun-laguntzako lehen maila horretako itxaron-denborei buruzko gardentasuna hobetzeko neurriak ezarri bidenabar.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du:

1. Plan bat ezar dezan larrialdikoa ez den arretarako, oinarrizko osasun-laguntzan gehienez ere 48 ordu itxaron beharko dela bermatzeko.

2. Arreta presentziala berma diezaien, larrialdikoa ez den arretarako, arreta-mota horren hautua egiten duten paziente guztiei.

3. Larrialdikoa ez den arretarako itxaron beharreko denboraren adierazleak presta ditzan 3 hila-beteko epean, profesional-motaren arabera, hitzordua jasotzeko moduaren arabera (telefonoz, webgunearen bidez, modu presentzialean....) eta

konsulta-motaren arabera (presentziala, telefono bidezkoa, etxekoa...).

4. Osasun Departamentuaren webgunean argitaratu ditzan, hilero hemendik 3 hilabetera hasita, larrialdikoa ez den eta arretarako itxaron beharreko denboraren adierazleak, osasun etxez osasun etxe.

Iruñean, 2024ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/DEC-00023. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Ijitoen Herriaren Egunarekin eta Nafarroako Ijitoen Erkidegoaren Egunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuaren ustez, Nafarroako ijitoen erkidegoa lehentasun gisa aintzat hartu behar da agenda politikoan, Europako erakundearen eta Ijitoen Berdintasun, Inklusio eta Parte-hartzerako 2021-2030 Estrategia Nazionalaren gomendioei jarraituz, lehentasunezko helburu harturik osasunaren, hezkuntzaren, enpleguaren eta etxebizitzaren arloetako desberdinkeriak murriztea, eta gazte eta emakume ijitoengan arreta berezia jarritz eta ijitoen elkartearen mugimendua balioan jarritz.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, behar adina baliabidez hornitu behar dira ijitoenganako planak eta estrategiak, beharrezkoa den eta nahikoa den intentsitatearekin eta denbora-aldetik

jarraitutasunarekin ezarri ahal izan daitezzen; halaber, plan eta estrategia horiek ijitoen erkidegoaren parte-hartze aktiboa erraztu behar dute.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du ijitoen entitateekin batera kulturarteko bizikidetzaren garatzeko politikak sustatzeko, elkarren ezagutzatik eta aitortzatik abiatuta eta ijitoen parte-hartzea eta protagonismoa aintzat hartuta. Ijitoen kulturaren eta historiaren ezaugarri bereziak aintzat hartuko dituzten politikak eta ijitoen aurkako egoerak eta arrazakeria eta diskriminazio modu oro salatzen dituztenak.

4. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die Ijitoen Kulturaren Hilabetearekin lotuta antolatzen diren ekitaldi guztietan parte hartzera".

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

**11-24/PES-00165. Galdera, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako desti-
norik gabeko espezialistei buruzkoa****ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako destinatorik gabeko espezialistei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Urtarrilean galdera idatzia egin genuen Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ari diren destinatorik gabeko irakasleei buruz. Irakasle espezialista horiek oraindik ez dute destinatorik, nahiz eta funtzionario finkoak izan (11-24/PES-00021). Oraingoan galdera bera zabaldu nahi dugu ,DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasleen egoerari buruz jakiteko.

Zenbat dira DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan egoera horretan dauden irakasleak?

Zein espezialitatekoak dira?

Zenbat denbora daramate egoera horretan?

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/PES-00166. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer zuzemen, txosten eta azterlan egin dira Nafarroako Gobernuaren lehendakariak esan dezan bukatze dagoela Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa?

Barne-lanak egiten jarraitzen baldin baduzue, zer epetan aurreikusten duzue egonen dela hitzarmenaren aurreko lehenbiziko dokumentu, txosten edo azterlana?

Kontseilariak nola interpretatzen du lehendakariak esan izana bukatze dagoela Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen hitzarmen ekonomiko-finantzarioa, ez baldin bada egin lanerako zuzemen, txosten edo azterlanik?

Iruñean, 2024ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00167. Galdera, 11-24/PEI-00262 informazio eskaerari buruzkoa*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, 11-24/PEI-00262 informazio eskaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2024ko martxoaren 8an, informazio-eskari bat egin nuen, honako hau jakiteko:

Nafarroako Gobernuak eta haren menpeko enpresa publikoek 2019ko uztailetik hasi eta gaur arte honako enpresa hauekin egindako kontratu guztien zerrenda:

– FCS Select Product S.L.

– Weihal Textile.

Hezkuntzako kontseilariak honako hau adierazi zigun informazio-eskari horri erantzuteko: Hezkuntza Departamentuak ez du epe horretan kontraturik sinatu ez FCS Select Product, SLrekin ez Weihal Textile-rekin ere.

Kontuan hartuta munta txikiko kontratuetan ez dagoela kontraturik zertan sinatu, Hezkuntza Departamentuak bermatzen al du enpresa horiekin ez dela inolako kontratu-harremanik egon?

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/PES-00168. Galdera, Andosillako eta San Adriango landa eremuko larrialdi ekipoak bateratzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Andosillako eta San Adriango landa eremuko larrialdi ekipoak bateratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ikusita Andosillako udal-gobernuari adierazi zaiola Andosillako eta San Adriango landa eremuko larrialdi ekipoak bateratzeko asmoa dagoela, bi ekipo horietako bakoitzak zenbat profesional dauka gaur egun eta zenbat profesional edukiko du ekipo bateratu berriak?

Iruñean, 2024ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00169. Galdera, Andosillako eta Carcarko landa eremuko larrialdi zerbitzua San Adrianera eramateari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Andosillako eta Carcarko landa eremuko larrialdi zerbitzua San Adrianera eramateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Osasun Departamentuak aurreikusita al dauka Andosillako eta Carcarko landa eremuko larrialdi zerbitzua San Adrianera eramatea?

Hala baldin bada, zer arrazoi dago erabaki hori hartzeko eta noiz eginen litzateke aldaketa?

Iruñean, 2024ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-24/PES-00170. Galdera, Europako Next Generation funtsei buruzko web berriaren egoerari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako Next Generation funtsei buruzko web berriaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2024ko otsailaren 2an egindako agerraldian esan zuen Europako Next Generation funtsei buruzko webgunea taxutzen ari zirela eta laster aurkeztuko zutela.

1. Zertan da hori?

2. Noiz aurkeztuko da webgunea?

Iruñean, 2024ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00171. Galdera, Andosillako jarduera ekonomikoetako poligonoari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, Andosillako jarduera ekonomikoetako poligonoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak (Nasuvinsa-Navarra de Suelo y Vivienda, SL sozietate publikoaren bidez) eta Andosillako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2013ko martxoaren 1ean, La Currilla alderdiko lurzoru urbanizaezineko lurzatieta jarduera ekonomikoetarako poligono bat sustatzeko eta egiteko, NA-134 eskualde-errepidearen ezkerrean hain zuzen ere. Han, 70.000 m²-ko azalera hartzen duten hiru enpresa daude gaur egun. Aurreikusitakoaren arabera, poligonoak 105.000 m² hartuko zituen gutxi gorabehera.

Hitzarmen hori sinatu zen Andosillako Udalak bere udal-mugartean lurzoru industrial gehiago eduki behar zuelako, ez zeukalako eta ez daukalako espaziorik enpresa berriak jartzeko edo daukadanak handitzeko. Enpresa batek baino gehiagok adierazi du poligonora lekualdatu nahiko lukeela, batzuek jarduera ekonomiko bat garatzeko eta

beste batzuek, herriaren erdialdean daudenak, instalazioak handitzeko.

Gaur, oraindik garatu gabe dago hitzarmena; ondorioz, Andosillan paratzeko interesa zeukaten enpresa batzuk beste herri batzuetara joan dira. Eta horren ondorioz ere, Andosillako Udala arazo ugari izaten ari da bere garapen industrial eta ekonomikoari begira.

Nasuvinsaren eta Andosillako Udalaren arteko hitzarmena sinatu zenetik hamar urte luze eta gero, zergatik ez da oraindik garatzen amaitu sinatutako moduan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/PES-00172. Galdera, martxoaren 22an Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, martxoaren 22an Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Komunikazioko zuzendari nagusia zergatik joan zen Nafarroako lehen-dakariarekin batera Cabanillasko gizarte-etxe berriaren inaugurazio-ekitaldira martxoaren 22an?

Zer eginkizun izan zuen ekitaldi horretan?

Gobernu Irekiaren webgunean argitaratutako agenda instituzionalean zergatik ez zen jaso ekitaldi horretara joanen zela? Gaur, apirilak 4, zergatik ez da oraindik jaso?

Nafarroako Gobernuak nor gehiago joan zen ekitaldi horretara eta zer eginkizun zeukan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00173. Galdera, 2023ko ekitaldian Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalean egindako inbertsioen exekuzioaren gaineko txostenari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2023ko ekitaldian Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalean egindako inbertsioen exekuzioaren gaineko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gaur, 2024ko apirilaren 4a, argitaratu gabe dago Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian 2023ko ekitaldian Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalean egindako inbertsioen exekuzioaren gaineko txostena. Zergatik?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00174. Galdera, Espainiako Gobernuak egindako iragarpenari buruzkoa, zeinaren arabera Nafarroak 11,2 milioi euro jasoko baitu datozen sei urteetan, irakasle laguntzaile izateko 46 lanpostu finantzatzeko

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Espainiako Gobernuak egindako iragarpenari buruzkoa, zeinaren arabera Nafarroak 11,2 milioi euro jasoko baitu datozen sei urteetan, irakasle laguntzaile izateko 46 lanpostu finantzatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak iragarri du Nafarroak 11,2 milioi euro jasoko dituela datozen sei urteotan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostu finantzatzeko; eta Nafarroako Gobernuak argitaratu duen informazioaren arabera, berriz, lanpostu horiek "irakaskuntza-dedikazioari dagokionez LOSUK ezarritako aldaketak direla-eta Nafarroak bere gain hartuko dituen lanpostu gehigarriekin osatuko dira". Hori horrela, nola osatuko dira lanpostu horiek, zein izanen da zenbateko ekonomikoa, eta zer aurrekontu-ekitaldiren kargura ordainduko da?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

